

Erref. kodea: LAF-210-111

Izenburua: Benedictus Spinoza-ri

buruzko ikerketa

SPINOZA  
DESCARTES  
[KUS: 202-022

Latina ikasirik, orduko bertze jakitate guzien  
itzulia egin zuen, otso-kume baten gosearekin.  
Bertzeak bertze, Giordano Bruno Italianoak  
barna danik hunkitu zuen, eta hitz harrigarri  
hauk erran zizkion beharriak: « gaintkoa  
munduaren arima da », edo « arimen arima ».  
Azkenaz goiti, Descartes egin zuen buruz-buru.  
Ikusiko dugu huni zer dion hartu, zer utzi,  
zertan bihurtu zaien; baina nork dahi  
ez ohe dion hunek ondareko bultza eta  
oldea eman, bere bide berrian ~~urritu~~  
ezarri?

Spinoza ez zen menturaz jazarri nahia,  
baina ez zen eiki jarraiki nahia: ez  
zuen aiten eta arbasoen fedea utzi gogo,  
gaitzki frogatua zelakoan; ez zen  
sinestiaz okaztatua: sinets gura zen,  
baina bertzek ez bezala sinetsiz, zabalkiago  
eta goragotik. Ez zitzaion aiter mixterio  
huni edo hari, lege huri edo hari; baina  
gaintkoa bera, mixterio eta lege guzien  
erroa edo hastapena, kendu nahi zion eliza  
hertxi eta berekoi bati, mundu-erdi-erdian  
~~eta~~ ezari eta azken bazterretaraino hedatu  
beharez, ororen bethagarri.

Auzi handi bat piztu zitzaion Baruch-i  
gogo-bihotzetan; eta, gure iduriko, bihotza  
zuen erienik, goseenik: bilha zabilan  
zerentzat bizi, ~~eta~~ eta nori edo zeri eman bere  
burua, hartan utzeraino. Ez, ez zitzaion  
aski Israël-en gaintko bekaiztia, ez aski  
filosofoen edo gixtinoen kura bera: gaintko  
bat aski nasaia behar zuen, hartan izarte

ez amodioz : amodiaa balute, lagunt ginezazkete  
ikas-etxetan eskuararen erakusten. Ez gira  
hortan. Franko-k baino lehenago debekatua  
dankute eskua frantses naurick eskoletan eta  
etizetan. Beharrik apezek luiaz gogoz egin  
zuten eta oraitu arte eskua begiratu dute.

Uzten dankuten esku edo libelate pochia  
behar othe dugu gaitzerat utzi? Ez baginu  
baliatzen, ez lukeke arrotzek hobena : guk  
ginuke. "Denak ala dena -ez" -ka artzeak  
handi emaiten du ; baina Magnificat-ean  
errana da gainkoak chumeak dituela  
goratzen. Chume bada chume, niki uste  
dut ongi dela eskuararen salba-bideari  
jartzea.

gaimen-ek bere hasarean erraiten  
danku Euskalgaindiaren <sup>ch</sup> ~~ch~~ edea dela  
eskuararen suntsitzea ! Barkatu behar  
zaio hari handiko hori. Ez du nehorik  
sinetsiko Azkue, Zamarripa, Chande,  
Elissalde, Darrane, Yrigaray, Irujo,  
M<sup>re</sup> St Pierre eta bertze eskualzainak  
(Manuel de Lecuna barne) eskuararen  
etsai herratsnak direla. Zonbaiten beren  
bizi & gehientsua haren muthil ereman  
dute, gauak egunduz eta ontasunak  
chahutuz, eta orai irakurku behar :  
« su designio hacer desaparecer el euskera » !  
neurri eskas horrek neurtzen du artikulu  
borthitzaren egilea.

Hasian hasi, ostiko bat ere igortzen  
doste gure artikulu azer-arazi duten  
« Ope » eta « Luzko - Deya » kazeteri, baizik

gizon gazteak erlisioneko maniak begiratzen  
zituena guti edo asti, ohiduraz eta aitaren  
herabez: baina ez zuen heietan sinesterik;  
haren arabera, zinaagogako biltzarerak joanik  
ere, egia hartaz goragokoa zen. Aita hil  
zenean (1654), hugo eta bi urte baitzuten,  
ez zuen gehiago den gutienik gorde zer zuen  
golkoan: erlisionea bastererat utzi zuen, alde bat.

Ahardeak samurtu zitzaizhon lehenik, gero  
adixkideak, azkenean zinaagogako aintzindariak.  
Spinozak etxeak utzi zituen, arnegatzen  
zutenaz geroz, eta denen aintzinean utxi egin  
zuen bere primantzarik. Lagun zaharrek ere  
urundu zitzaizkon, zombait: erakutsiz zer zuten  
balio. Ahulku, mehatxu, elhe tzar, laido,  
deus ez zitzaion faltatu. Hil nahi ere izan  
omen zuten; zer izanik ere, 1656-eko  
uztailaren 27-an "Zaharrek" eskumikatu zuten,  
erran nahi baita, bertze juduetaririk izurridun  
baten pare baztertu eta xoildu: huts bat,  
huts oso bat egin zen Baruch-en inguruan;  
hiritik ahera behartu zitzaion: Onderkerken  
doi-doi egonik, Rijnsburg-erak jo zuen,  
Endegeesti hurbil, hemen egona baitzen  
Descartes.

Hiru ~~er~~ urte egin zuen lan Rijnsburg-en:  
hor ontu zuen bere liburua-laburra. Ahal bezalako  
bizia bazeraman eta osagarriak ez zuen  
laguntzen: diru zerbituen egiteko, beinakintzan  
ari zen eta pinturan.

Haren omena ari da hedatzen; adixkide  
berriak egiten ditu, batzu fluxak, bertzeak  
zin-zinezkoak: hartaz lotsatua da jendea, edo

zer biltzara bitaken gizona, gauzak hark eman bezala  
bitara. Sorharotasun bitria. Bizitartean aithoz  
du gain-gaineko ongiaren bitzatzea daela xede, eta  
hortako beroko izendatu du Ethica bere idazki  
sarkomena: ethica-rik ez ditake gizonarentzat  
bitzirik. Zoin unun elganetarik bi gogoeta. mota  
hoik! Ez dira bita bertzean aitha-erretak, eta  
ihusko dugu ez ditazkela osoki ~~in~~ bitetarak bit,  
ez gainkoaren, ez gizonaren auzietan.

#### Abiadura

Descartes bere gogoeta bertetan sartu zen oroz  
gainetik neurri-jakitatetan egiaren bitzatzeke:  
matematika eta fisika zituen ihizi: mundu  
hau zuen ikas-gai. Spinoza bai jitez, bai nahiz,  
arimako gauzetarak emanago eta ichurrago zen.  
Egia bithatzen du, haren arakera bitzizke eta  
dohatsa izaitke. "Ezaguturik maiz orozen bitzian  
gerthatu gauza guziak alfer eta ez-deus dirata;  
ihusi-eta izitzen ninduten gauzetan ez zela biti  
bat bere bitthan deus onik ez gaitozirik zautkanik,  
edo ariman aithalatu ~~in~~ zentimenduen mediaz  
bitzahatela, azkenean erabaki nuen behar  
nuela bithatu, ea zertarik bitzenez egiatzke